

txoritxoari mokoka

Aznar lehendakari

Europako buru Aznar izango dela sei hilabetez azaldu digu Arte kateak, larunbateko erreportaia baten bidez. Gauza berri guti ikasi dugu Espainiako Estatuko gertakarietaz. Lehen bisita, Andaluziako El Ejido inguruan: barazkiak nola artatzen dituzten Europako diru laguntzarekin, eta ura oso-oso guti ordainduz. Baina herri horretako arrazakeriaz hitzik ere ez. Bigarren bidia, Euskal Herrian: Ea ba irakurle, asmatzen duzun zein izan den gai bakarra eta zointsu elkarrizketatu dituzten gai horretaz. Bakearen Al-



JOHN GURZINSKY / EPA

Jose Maria Aznar Espainiako presidentea.

Xarlo Etchezaharreta

deko Koordinakundeko kide bat eta Gorka Landaburu kazetaria, nola ez ba...

Kazetariak Ramon De Miguel elkarrizketatu du ondoren. Beste galdera zozo batzuen artetik bat gustatu zait; hauxe, hain zuzen: «Beste herri batzuek bortizkeriaren problema konpondu zuten duela urte batzuk, Alemaniak eta Italiak adibidez; zuek zergatik ez?» Artetik errateko zendako ez du Irlanda aipatu berriketariak? Dena den, galderari huna zer erantzun dion De Miguelek: «Zuek ere baduzue problema bat hiru probintziekin; ETA ez da bakarrik gure problema..»

Kazetaria nolako, erantzuna halako...

LABURRAN

Jean-Pascal Lacoste ez da TF1eko Star Academy saioko finalera iritsi


Frantziako iturri batzuek kontrakoa bazioten ere, eta atzoko EGUNKARIAN hala idatzia bazen ere, Jean-François Lascoste ez da Star Academy finalean izanen. Hain zuzen ere, donibandarrak musika saioko finalerdietan justu-justu galdu zuen. Publikoak bozkatu ondoren, bigarrena heldu zen Marioren gibelean. Hori dela eta, Mario frantziarra izanen da Jenniferen ondoan finale-rako. Donibane Lohizuneko fan kluba ez da batere ados erabakiarekin. Hauen ustez, TF1ek ahal zuen guztia egin du Jean Pascalek ez irabazteko.

'Policías' eta 'Hospital Central' telesailak itzuliko dira gaur

Gaur gaueko 22:00etan A3 kateko *Policías* eta T5eko *Hospital central* telesailetak denboraldi berrietako lehenengo atalak emango dituzte. *Policías* telesaila bosgarren denboraldira iritsi da eta bi aktore berri arituko dira (Melanie Olivares eta Gloria Muñoz). *Hospital central*, berriz, hirugarren denboraldian da eta aktore berriak Amaia Lizarralde eta Paulina Galvez dira.

Igande honetan estreinatuko du T5en Emilio Aragonen bere azkeneko telesaila

Javier ya no vive solo telesaila estreinatuko dute igande honetan T5 katean (21:30ean). Emilio Aragon da protagonista eta bere aldamenean Fernando Guillen Cuervo, Nuria Roca, Emilio Gutierrez Caba eta Cristina Marcos izango ditu, besteak beste. 40 urte inguruko ezkongai berekoi baten gorabeherak kontatzen dira telesailan.



EGUNKARIA

Michael Armstrong AT&Tko presidentea Comcast enpresako arduradun Ralph eta Brian Robertsek bat-egitea sinatu zen egunean.

ESANAK

IÑAKI ZABALETA
(EHUko irakaslea)

«Azken urteotan kable operadoreek ahalegin handia egin dute digitalizatzen»

«AT&T Comcastek mehatxatu egiten ditu dibertsitatea eta kompetentzia»

«Europar ere kontzentrazio bideak nabarmentzen dira»

Kablearen erraldoi berria

KABLE TELEBISTA AEB-ETAN. AT&T Comcast kable bidezko telebista handiena bihurtu da Ameriketako Estatu Batuetan

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Urtea Estatu Batuetan telebistaren erraldoi baten lehenengo pausoekin hasi da. Kable bidezko Comcast enpresak AT&T Broadbandekin bat egin du eta horrela AEBetako borroka irabazi du. Bi enpresen bezeroak bat eginda 20 milioi ingurura iristen dira (kablearen harpidedun diren 70 milioetatik). Bat-egite efektiboaren prozesua bederratzi hilabete baino gehiagokoa izan daiteke, baina dagoeneko bere eragina izaten ari da.

EHUko irakasle Iñaki Zabaleta aditua da kable telebistan eta hainbat ikerketa egin ditu gaia-

ren inguruan. «Bi enpresen bat-egitea zein testuingurutan eman den aztertu behar da. AEBetako telebista duela gutxi arte analogikoa zen. Azkeneko urteotan kable operadoreek ahalegin handia egin dute beren tresneria digitalizatzen, interaktibitate ahalbidetzeko. Orain, bi bideko zerbitzua eskain dezakete operadoreek. Interneten eta telefonian ere sartzen ari dira. Kable enpresen balioa igotzea ekarri du horrek guztiak» azaldu dio EGUNKARIARI Zabaleta.

Satelite eta lurreko telebista digitalaren aurrean kable telebistak bere tokia aurkitu du AEBetan eta esanahi berezia

hartzen du bi enpresa handien bat-egiteak.

Kompetentzia eta dibertsitatea mehatxupean

Egoera horrek ekarriko duen alde negatiboaz hitz egin digu Zabaletak. «Center for Digital Decrocy erakundeak ohartarazi du bat-egiteak izugarritzko operadore handia sortzen duela eta horrek mehatxatu egiten du kompetentzia eta dibertsitatea. Programazioan eta banda zabaleko merkatuan aldaketak ekar ditzake AT&T eta Comcasten bateratzeak».

Iñaki Zabaletaren ustetan Center for Digital Decrocyren iragarpenak beldurra emateko modukoak dira. «Lehen Estatu Batuetan kable operadoreen dispersioa nagusi zen. Orain, berriz, kontzentrazioaren bidea hartzen ari dira. Herri mugimenduek eta elkarteek lan

handia egin beharko dute operadoreen aurrean dibertsitatea eta egiazko kompetentzia zaintzeko. Gizarte aurrekoia garaia iritsi beharko du» dio EHUko irakasleak.

Datuei erreparatuta AEBetan 100 milioi etxe daude: kable telebista %98an pasatuta dago (harpidetuta %67). Satelitera harpidetuta, berriz, %10 dago. Gobernuak onartu du sateliteak kanal lokalak emateko aukera eta hor beste kompetentzia bat sortuko da. Baina kableak nagusi izaten jarraitzen du. Eta AT&T Comcast telebistak (milaka milioi dolarreko dirutza mugitzeaz gain) orain AEBetako bigarrenak, hirugarrenak eta laugarrenak batera dituzten beste bezero ditu.

«Europar ere kontzentrazio bideak nabarmentzen ari dira, baina ez AEBetakoaren proportzioan oraindik» dio Zabaletak.